

Testu bat, hiri bat, uharte bat

Idoia Santamaría Urkaregi

Testu bat da hiri bat. Erdialdea eta auzoak. Aldapak eta zelaiak. Alde zaharra eta berria. Tabernak eta antzokiak. Museoak eta errepideak. Todo-a-cienak eta bitxi-dendak. Iragarki distiratsuak eta zinema-areto ilunak. Semaforoak eta kale-argiak. Supermerkatuak eta gutizia-dendak. Kale-garbitzaileak eta botelloia. Bizilagunak eta puzzleak.

Denek hartzen dute lekua. Denak daude. Ondo ordenatuak dirudite batzuetan, komak, puntu eta komak eta puntuak ondo jarrita baleude bezala. Beste batzuetan, berriz, plan partzialen bat behar da, testuko hezetasun-orban txiki hori garbitzeko edo esaldi hautsi hori hurrengoarekin lotzeko. Plan bereziak ere behar dira tarteka, lerropean gelditu den hitz batek eragin duen ur-jarioa eteteko. Gauzak apur bat gehiago konplikatzen direnean, plan sektorialetara, edo are orokorretara, jo behar izaten da. Orduan, bilera-deia zabaltzen du obraburuak: halakoetan, ordea, liskarrean hasten dira maiz aditzak eta izenak, beti norgehiagoka, armonian, eta isilarazi egin behar izaten ditu administratzaileak. Ez dira beti erraz baretzen, hala ere. Zirt edo zart egin behar izaten da haiekin sarri samar: lokailu bat sartu, eta bakea.

Lehenengo bertan izan genuen bizilagunen arteko sesio horietako bat: lehenengo perpauseko izena bigarreneko erlatibo tentearekin muturtuta. Batak besteari bizkar emanez, ez batak ez besteak ez zutela amore emango. Etxabeko aposizioa ere sartu zen tartean, eta, hura tematzen denean, akabo. Morroi hori baino bazter-nahasle handi-agorik... Lagundu ordez, traba egiteko prest beti. Eskerrak laugarren solairuko lokailuari.



Isila da oso, bileran dagoela ere ez zara konturatzen askotan, baina berak ekartzen du maiz giroa bere onera, batere espanturik egin gabe.

Hirugarreneko juntagailua ere jatorra da, oso lagunartekoa. Beti afariak antolatzen: honekin, eta harekin, eta bestearekin. Eta joan behar dugula, eta ekarri dituela, eta eramango gaituela, eta ikusiko lituzkeela hura eta bestea. Hainbeste jenderen sartu-irtenekin, ordea, haserretu egiten zaio batzuetan pareko bizilaguna: menderagailua. Aldrebesagoa, nahi baduzue, baina parte onekoa.

Ni seigarrenean bizi naiz. Bista ederra terrazatik. Behera begiratu, eta bizilagunen balkoi guzti-guztiak ikusten ditut. Haien etxeetako musikaren oihartzuna ere iristen zait tarteka. Beste batzuetan, berriz, zarata hutsa. Baina asteak daramatzat etxetik atera gabe, etxabeko aposizioaren beldur. Azken bileran, izugarri oilartu zitzaidan, eta esan zidan astebetean plan orokor ganorazko bat aurkezten ez banion eraikina txukuntzeko, barrikada jarriko zidala lehenengo esaldian bertan eta Corto Maltesek berak ere ez ninduela segada hartatik askatuko.

Harrezkero, hemen nago, terrazan gau eta egun, Corto Maltese ostertzean noiz azalduko, hitzak eta hiriak atzean utzi eta Cortorekin Antilla uharteetara ihes egiteko prest, control-de-cambiosa betiko desaktibatuta.